



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 36
Urtea/Año 2017
Apirila/Abril

HIRUHILEKOAREN ESKOLEN AMAIERA

Gogoratu ostiral honetan, apirilak 7, hiruhilekoaren eskolak amaituko direla. Astelehen eta asteartean, apirilaren 3a eta 4a hurrenez hurren, arratsaldeko 6:15 eta 7:30ean, hiruhileko-amaieraren entzunaldiak izango ditugu Areetako Entzunaretoan. Zuen zain izango gaituzue.

Eskolak apirilaren 23an, astelehena, hasiko dira berriz. Oso ondo pasa oporretan.

HILEKO JARDUERAK

Apirilaren 2, 9, 23 eta 30ean. 19:30ean: "Andrés Isasi"
Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

Apirilaren 3 eta 4an. 18:15 eta 19:30ean: "Andrés Isasi"
Musika Eskolako ikasleen Aste Santuko emanaldiak. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Apirilaren 5ean. 19:30ean:
Mario Clavell irakaslearen flauta-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Apirilaren 7an. 18:30ean:
Hitzaldi musikalak José María Bretos Linazaren eskutik. "Mendebaldeko musika-tresnen eboluzio historikoa. Kantua". "Andrés Isasi" Musika Eskolako Liburutegian. Sarrera: 3 €. Leku mugatua.

BA AL ZENEKIEN?

Abesbatzen kideen bihotzek batera egiten dituzte taupadak eta beraien sentimentuek bat egiten dute. Göttingerko Unibertsitateko Neurozientzien eta Fisiologiaren Institutuan egindako ikerketaren arabera, taldekako kantuak gidatutako arnasketak ongizate fisiko eta emoziozkoan laguntzen du. Abesbatzaren kideek ez dute soilik musikaren erritmoarekin batera mugitzeko eutsi ezinezko gogo; beren bihotzek ere batera egiten dituzte taupadak. Abesten hasi eta minutu gutxira, pultsua berdin egiten da eta, ondorioz, "kantuak abesbatzaren kideen artean partekaturiko emozio-eredua sortzen du", "Frontiers in Psychology" aldizkariaren azken alean adierazitakoaren arabera. Abesteak, ohikoa baino geldoagoa den arnasketa-erritmoa izatea dakar; honek, berriz, bihotz-jardueran eragina du. Bihotz-erritmoa arnasketa motelarekin bat egiteak eragin subjektibo eta biologiko lasaigarria dauka eta onuragarria da funtzio kardiobaskularrarentzat. Abestiaren esaldien luzerak arnasketa gidatzen du, erregularra, motela eta sakona bihurtuz. Esaldi luzeko abestiek, yogaren arnasketa-eraketak duten eragin bera lortzen dute. Abesbatzan abestea, baterako ekintza jarraituaren adibidea da, abeslariaren beraien ahotsak, hitzak eta erritmoa taldera egokitzen dituztelako. Honek, faktore hauek erregulatzen dituzten bulkada neurologikoak sinkronizatu egiten direla esan nahi du eta, ikerketak erakusten duenez, arnasketa eta, ondorioz, bihotz-erritmoa eta emozioak ere sinkronizatu egiten dira. Zientziak bermatutako abesten jarraitzeko zergati berriak.

2017-2018 IKASTURTERAKO MATRIKULA. ONLINE MATRIKULAZIOA. PREZIOAK 2017-18

Barkamena eskatu behar dizuegu. Aurreko zenbakian esan genizuen martxoaren 20tik 31ra zabalduko genuela epea ikasle ofizialek datorren ikasturterako matrikula betetzeko. Matrikula online egin ahal izateko prozesua doitzeko arazoren bat izan dugu eta epea atzeratu behar izan dugu. Epe berria apirilaren 24tik maiatzaren 5era artekoa izango da. Hurrengo egunetan jasoko duzue ikasgelan matrikula egiteko dokumentazioa.

Ohi bezala, Musika Eskolan bertan ere egin ahal izango duzue matrikula.

Informazio-orrian, datorren ikasturtean aplikatuko diren prezio publikoen berri ere aurkituko duzue.

Datorren ikasturteari aurrera, hiru hilez behin igorriko zaizue ikasturteari dagokion kuotaren herena. Zordunketak aurtengo urriaren eta 2018ko urtarril eta apirilaren lehenengo hamabostaldian izango dira. Matrikula irailan igorriko da.

HITZALDIAK LIBURUTEGIAN: "MENDEBALDEKO MUSIKA-TRESNEN EBOLUZIO HISTORIKOA"

Ostiral honetan, apirilak 7, "Hitzaldi musikalak Liburutegian" zirkloa amaituko dugu. Musikene-Euskal Herriko Goi-mailako Musika-zentroan Musikaren Akustika eta Organologia-irakaslea den José María Bretos Linaza algortarrak emandako lau dibulgaziozko hitzaldietako azkena izango da.

Saio honetan giza-ahotsa, kantua, izango dugu protagonista.

Hitzaldiak oso harrera ona izaten ari dira. Mila esker zuen parte-hartze eta zorion-adierazpenengatik.

Gogoratu hitzaldia ostiralean izango dela, arratsaldeko 6:30ean, eta sarreraren salneurria 3€koa izango dela.

Ez ezazue gal. Liburutegian denez, 50 pertsonentzako lekua besterik ez dago.

Hileko egutegia

Apirila

| | | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|--------------------------|
| al | ar | az | og | or | la | ig | |
| | | | | | 1 | 2 | |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | ■ Jai-egunak |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | ■ Jarduerak eskolan |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | ■ Jarduerak jai-egunetan |